

2011ko ABENDUAREN 22ko UDALBATZARRA
PLENO DE 22 DE DICIEMBRE DE 2011

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, JOSE M^a TELLECHEA MICHELENA, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:
JAIONE ANDUEZA INTXAURRONDO.

Tokia: BERAko Herriko Etxea.
Eguna: 2011-12-22
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.
Día: 22-12-2011
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2011.eko azaroaren 17an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 17 de
noviembre de 2011, por unanimidad SE A-
PRUEBA.**

**2.- 2012. urteko AURREKONTU OROKO-
RRA ONESTEA.**

**2.- APROBACIÓN PRESUPUESTO GENE-
RAL 2012.**

***Kontuhartzaileak aurrekontuaren laburpena
azaldu du.***

***El interventor explica el resumen del presu-
puesto.***

Juan Losak bilera honetan tratatu behar diren gaiengatik lan hizkuntza bat eskatu ondoren, zera dio:

Aurkako botoa eman behar du aurrekontu hauetan gizartearen parte bat diskriminatua dagoelako, ikastetxe guztiei berdin tratatu behar zaie.

Erabakia atzeratzea eskatu du, bestela, aurkako botoa emanen du.

Gastuak murrizteko, Euskara Mankomunitateari kentzen ahal zaio eta diru horrekin langabezian dauden familiei lagundu.

Beste gaietan aurrekontua ongi dago.

Alkateak erantzun dio:

Hilabete t'erdia daramate aurrekontua aztertzen eta, bederen, 2 azkeneko bileretan bera ez da agertu.

Kanpoan egon da zenbat denbora eta, orain, demagogiarekin ageri da.

Berriro, hizkuntza erabiltzekoari buruzko eztabaida sortu da eta gastu hori ez badu egin nahi ere, itzulpen zerbitzua eskatzera behartuko dutela dio Juan Losak.

Jose M^a Tellechea:

Langabeziei buruz, herri honetan 2 fabrika daude EREn nahiz eta irabaziak izan eta ERE horiek Nafarroako Gobernuak, onartu egin ditu, beraz, bere partiduak, UPNk, bultatzen du langabezia.

Aurrekontuari dagokiona, ezin dute onartu erreala ez delako, Euskera Mankomunitateak onartu du bere aurrekontua eta Udalek errespetatu behar dute.

Alkatea:

Euskera Mankomunitaterako joan den kopuru bera jarri dute, ezin baita gehiago gastatu. Hala ere, honi buruz ez da beste proposamenik izan aurrekontua prestatzerakoan.

Santiago Alzuguren:

Aurrekontuaren alde dagoela, hala ere, datoren urteari begira lehenago hasi behar dela tratatzen eta sakontzen.

Aurten berezia izan da hauteskundeak izan

Juan Losa, tras solicitar una lengua de trabajo para esta reunión por los temas a tratar, manifiesta lo siguiente:

Va a votar en contra porque se discrimina a una parte de la sociedad, hay que tratar igual a todos los centros escolares.

Solicita el aplazamiento de la aprobación, en caso contrario, votará en contra.

Para reducir gastos se le puede recortar a la Mancomunidad de Euskera y con ese dinero ayudar a las familias que están en paro. En otras cosas, el presupuesto está bien.

La Alcaldesa le contesta:

Llevan mes y medio estudiando el presupuesto y, por lo menos, en las 2 últimas reuniones no ha asistido.

Ha estado fuera durante un tiempo y, ahora, aparece haciendo demagogia.

De nuevo, surge la discusión sobre la lengua a utilizar y, Juan Losa señala que, aunque no quiere hacer ese gasto, se le va a obligar a pedir el servicio de traducción.

José M^a Tellechea:

Sobre el paro, en este pueblo hay dos fábricas en ERE aunque tienen beneficios y dichos EREs los aprueba el Gobierno de Navarra, por lo que su partido, UPN, es el que promueve el paro.

Respecto al presupuesto, no lo pueden aprobar porque no es real, la Mancomunidad de Euskera ha aprobado su presupuesto y los Ayuntamientos lo deben respetar

La Alcaldesa:

Para la Mancomunidad de Euskera se ha presupuestado la misma cantidad que el año anterior, no se puede gastar más. Aun así, no ha habido ninguna propuesta al respecto al preparar el presupuesto.

Santiago Alzuguren:

Está a favor del presupuesto. No obstante, para el año que viene se debería empezar a tratar antes y en mayor profundidad.

direlako eta horregatik denbora eskasagoa.

Eztabaida hori izan ondoren, bozketa egin dute:

Aldeko boto: 5 (3 Aralar eta 2 EAJ/PNV)

Aurkako boto: 5 (4 Bildu eta 1 UPN).

Bigarren bozketa egin eta lehengo emaitza bera (5 alde eta 5 aurka) suertatu da. Beraz, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 87. artikuluari jarraikiz, Alkateak kalitatezko botoaren bidez erabaki beharko eta hauxe gelditu da: 6 boto alde eta 5 aurka.

Bozketa bukatu ondoren, Juan Losak zera erran du idazkariak aktan jaso dezan:

UPNk aurkako botoa eman du Berako herritarren parte bat sarturik ez baitago.

Hori dela eta, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, 2012.eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.

Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.

ERABAKI DUTE:

- 1) 2012.eko Aurrekontu Orokorra, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.
- 2) Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituz-

Este año es especial por las elecciones y por ello el tiempo ha sido más limitado.

Tras el debate anterior, se lleva a cabo la votación:

Votos a favor: 5 (3 Aralar y 2 EAJ/PNV)

Votos en contra: 5 (4 Bildu y 1 UPN)-

Se realiza una segunda votación con el mismo resultado de empate (5 a favor y 5 en contra). Por lo que, de acuerdo a lo establecido en el artículo 87 de la Ley Foral de Administración Local, la Alcaldesa debe decidir con el voto de calidad y resulta: 6 votos a favor y 5 en contra.

Finalizada la votación, Juan Losa le indica a la Secretaria para que conste en el acta:

UPN vota en contra porque hay un sector de la ciudadanía de Bera que no está reflejada.

En consecuencia, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2012, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

SE ACUERDA:

- 1) Aprobar inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2012, antes indicado.
- 2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos y vecinas o interesados e interesadas

ten erreklamazioak jar ditzaten.

puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

3) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, Aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.

3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

Momentu honetan, 20:10 orduak izanik, Alkateak bilera gelditu du Tokiko Gobernu Batzordeko kideekin biltzeko izandako Foruzaintzaren deiarengatik eta 20:15etan berriz bilerari hasiera eman dio.

En este momento, a las 20:10 se suspende la sesión para reunirse los miembros de la Junta de Gobierno Local con motivo de una llamada de la Policía Foral y se reanuda a las 20:15 horas.

3.- 2012. urteko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-

3.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2012.-

Idazkariak azaldu du, legez, gai hau aurrekontuarekin batera onartu behar dutela eta joan den urteko plantilla bera dela.

La Secretaria explica que de acuerdo con la normativa este asunto debe aprobarse junto con el presupuesto y que se trata de la misma plantilla que el año anterior.

Juan Losak erran du aurrekontuarekin lotua dagoenez ezin duela onartu.

Juan Losa manifiesta que como está unido al presupuesto no la puede aprobar.

Bozketan eginda, 9 boto alde ageri dira (3 Aralar, 4 Bildu eta 2 EAJ/PNV) eta bat aurka (UPN).

Realizada la votación resultan 9 votos a favor (3 Aralar, 4 Bildu y 2 EAJ/PNV) y uno en contra (UPN).

Hori dela eta, honako erabakia hartu dute:

Por lo que, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2012. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espedienteak.

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2012.

Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconcelo indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconcelo y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:

"Nafarroako Administrazio Publikoek, e-bazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."

Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) 2012. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.

2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea espedientean eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren arabera.

3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, plantilla behin-betikoz onestzat hartuko dela ohartaraztea.

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vascuence sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2012.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de contratado, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el expediente y en este acuerdo.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

4.- NAFARROAKO AUZITEGI ADMINISTRATIBOAK EMANDAKO 5012/11 EBAZPENA BETETZEKO ERABAKIA: UCI2KOARI BURUZKO ZENBAT ERABAKI OFIZIOZ BERRIKUSTEA.

Idazkariak gai honen aurrekariak azaldu eta abokatuaren txostenaren konklusioak irakurri ditu eta, horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

2010eko maiatzaren 19an, Udal honek egini-ko zenbat administrazio-egintzak eta xedapenenak ofizioz berrikusteko espedientea hasteko eskaera aurkeztu zuten Udal honetan Jose J. Lanz Apezteguiak eta beste batzuk.

2011ko urtarrilaren 15ean, aipatutako pertsonak aurrez adierazi idatzia ezestearen aurka altxada errekurtsioa aurkeztu zuten Udal honen aurrean.

2011ko urtarrilaren 25ean, aipatutako pertsonak Nafarroako Auzitegi Administrati-boaren aurrean altxada errekurtsioa jarri zuten 2010eko maiatzaren 19an aurkeztutako eskaera, administrazio-isiltasunez, ezesteagatik.

2011ko maiatzaren 24n, Nafarroako Auzitegi Administratiboak 5012/11 Ebazpena eman zuen non xedatu zuen 2010eko maiatzaren 19an eskatutako espedientea irekitzeko eskaera ebatzi behar zuen Udalak.

2011ko azaroaren 7an Udal Erregistroan errekurtsogileek idatzia aurkeztu dute non TANen Ebazpena betetzea eskatu duten.

Ikusirik, espediente honi buruz Gesbidek eginiko txosten juridikoa, 2011ko azaroaren 18koa.

ERABAKI DUTE:

4.- ACUERDO CUMPLIMIENTO RESOLUCIÓN 5012/11 DEL TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DE NAVARRA: REVISIÓN DE OFICIO DE DIVERSOS ACUERDOS SOBRE LA UCI2

La Secretaria expone los antecedentes de este tema y lee las conclusiones del informe del abogado, tras lo cual, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Con fecha 19 de mayo de 2010, José J. Lanz Apezteguía y otros solicitaron al Ayuntamiento de Bera la incoación de un expediente de revisión de una serie de actos y disposiciones administrativas llevadas a cabo por este Ayuntamiento.

Con fecha de 15 de octubre de 2010, las mismas personas, presentaron un recurso de alzada ante el Ayuntamiento de Bera contra la desestimación del escrito anterior.

Con fecha de 25 de enero de 2011, las mismas personas, presentaron ante el Tribunal Administrativo de Navarra recurso de alzada contra la desestimación por silencio administrativo de la solicitud por ellos cursada el 19 de mayo de 2010.

Con fecha 24 de mayo de 2011, el Tribunal Administrativo de Navarra emite la Resolución 5012 mediante la que establece la obligación del Ayuntamiento de Bera de resolver la solicitud de incoación de expediente del 19 de mayo de 2010.

Con fecha 7 de noviembre de 2011, tiene entrada en el Registro Municipal una solicitud de los recurrentes solicitando el cumplimiento de la Resolución del TAN.

Visto informe jurídico emitido al respecto por Gesbide de fecha 18 de noviembre de 2011.

SE ACUERDA:

1) 2010eko maiatzaren 19an Jose J. Lanz Apezteguiak eta beste batzuk eskatutako zenbat administrazio-egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko espedientea irekitzeko eskaera ez onartzea lehen aipatu den txosten juridikoan adierazi diren arrazoien-gatik.

2) Erabaki hau interesatu guztiei jakinaraztea espedientean dagoen txosten juridikoarekin batera.

5.- BERAKO MUGIKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

Alkateak gaia azaldu eta mugikortasunak hirigintzan duen eragina azpimarratu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Berako Mugikortasunerako Ekin-tza Plana, Mugikortasun Diagnostia eta Mugikortasun Itunaren ondorioz eginikoa.

ERABAKI DUTE:

1) Aipatu Berako Mugikortasunerako Ekin-tza Plana onestea.

6.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B32/2011tik B36/2011ra.

2) Ebazpenak: 2011ko azaroaren 14ko 197. ebazpenetik 2011ko abenduaren 15eko 216.era arte

1) Por las razones señaladas en el informe jurídico antes reseñado no admitir a trámite la solicitud de iniciación de expediente de revisión de oficio de diversos actos y disposiciones administrativas solicitada por José J. Lanz Apezteguía presentada el 19 de mayo de 2010.

2) Notificar a las partes interesadas este acuerdo junto con el informe jurídico obrante en el expediente.

5.- PLAN DE ACCIÓN PARA LA MOVILIDAD EN BERA.

La Alcaldesa explica el tema subrayando la influencia que tiene la movilidad en el urbanismo, tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto Plan de Acción para la Movilidad en Bera elaborado tras la aprobación del Diagnóstico de Movilidad y el Pacto de Movilidad.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el Plan de Acción de Movilidad de Bera.

6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

1) Bandos: del B32/2011 al B36/2011.

2) Resoluciones: De la resolución nº 197 de 14 de noviembre de 2011 a la nº 216 de 15 de diciembre de 2011.

**7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BES-
TE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

Ez dira burutu.

Momentu honetan, bilera bukatu baino lehen eta aktan agertzeko Jon Abrilek Diario de Navarran egindako elkarrizketatik hurrengo pasarteak aipatu ditu, eta horien gainean bere iritzia zuzendu eta barkamena eskatu dezala aipatu dio Juan Losari, Berako herriari eta beratarrei kalte egin dielako, errandakoa onartezina baita, mesede eskasa egin dio herriari:

Irakurritako pasarteak:

- "Beldurra herriko paretetan itsatsita dago"
- "Bilduko jendeak jendea mehatxuekin seinalatzen du".
- "Baztertu nahi izan naute eta mehatxatu naute".
- "Izua boterean denbora anitz egon da".
- "Bera abertzaletasun erradikalaren sorlekua da".
- "Bigarren mailako herritartzat dute euren burua".
- "Bera hagitz gibeleratua dago".
- "Sarrera debekatzen zidan".
- "Nire aurkako pintadak ikusi behar izan nituen".
- "Beratik alde egin dezadan nahi dute"

Juan Losak erantzun dio:

Herritar aunitzen kexak hartu ditu, jendeak beldurra du Udaletxera kexatzera joateko. Berari eskatzen diote barkamena eskatzeko baina Bildukoek pintadak egiten dituzte eta Udalak ez die deus ere erraten.

Atentatuak izan direnean Udalak ez du deus ere erran. Udalarari desafiitzen dio ETArean aurkako eta biktimen aldeko komunikatua egitera.

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL
DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA COR-
PORACIÓN.**

No se producen.

En este momento, antes de la finalización de la sesión y para que conste en acta, Jon Abril lee los pasajes que luego se indican, sacados de la entrevista realizada en el Diario de Navarra y le requiere a Juan Losa para que rectifique su opinión al respecto y pida perdón al pueblo de Bera y a los y las beratarres por el daño causado indicándole que es inaceptable lo expresado en la misma y el flaco favor que le ha hecho al pueblo:

Los pasajes leídos:

- "El miedo está pegado a las paredes del municipio".
- "La gente de Bildu marca a las personas con amenazas".
- "Han querido excluirme y me han amenazado".
- "El horror ha estado mucho tiempo ahí en el poder".
- "Bera es la cuna del nacionalismo radical".
- "Se consideran ciudadanos de segunda".
- "Bera está muy retrasado".
- "Me prohibía la entrada".
- "Tuve que pasar el trago de ver pintadas contra mi".
- "Quieren que me vaya de Bera".

Juan Losa le contesta:

Ha recibido muchas quejas de ciudadanos, la gente tiene miedo de ir a quejarse al Ayuntamiento. A él le dicen que pida perdón pero los de Bildu hacen pintadas y el Ayuntamiento no les dice nada.

Cuando ha habido atentados el Ayuntamiento no ha dicho nada. Desafía al Ayuntamiento a hacer un comunicado contra ETA y a favor de las víctimas.

Jon Abril:

Ea biktima guztiak sartuko liratekeela galdetu dio eta Frontoiko pintadari buruz, “reconocimiento al pueblo vasco” jartzen duela adierazi dio.

Alkateak dio galdera bat egin nahi diola baina bakarrik erantzuteko bai edo ez:

Erran baldin bazuen Berara etorri zela hobetzeko hemendik kanpo zegoen irudia ea Berako paretetan beldurra erantsia dagoen iritziarekin bat datorren

Juan Losak ez du erantzuten bai edo ez eta hasi da berriro lehengo gaiez solasten, Alkateak errepikatu dio ea bai edo ez erantzuteko, baina zinegotziak jarraitzen du hitz egiten bere gauzetaz, azkenean, Alkateak erran dio isiltzeko, ez duela hitzik 2 edo 3 aldiz, hala ere, kasurik egin ez duenez Alkateak bilerari amaiera eman dio.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:40etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

Jon Abril:

Le pregunta si entrarían todas las víctimas y sobre la pintada del Frontón le aclara que pone “reconocimiento al pueblo vasco”.

La Alcaldesa le dice que le quiere hacer una pregunta pero que solo tiene que contestar “sí” o “no”:

Si dijo que venía a Bera para mejorar la imagen sobre la localidad que se tenía fuera de aquí, si sigue manteniendo que el miedo está pegado a las paredes de Bera.

Juan Losa no le responde “sí” o “no”, empieza nuevamente a hablar de los temas anteriores, la Alcaldesa le repite que responda “sí” o “no”, pero el concejal sigue hablando de sus temas.

Al final, la Alcaldesa le dice que se calle, le repite 2 o 3 veces que no tiene la palabra, pero como hace caso omiso, da por terminada la sesión.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:40horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta